Usurbilgo Udala

Esp.zk.: ID.05/2022-0191
2022DEKR0473

HORNIDURA KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN BALDINTZA AGIRIA, PROZEDURA IREKI BIDEZKOA.

BRIGADAKO ITURGINARENTZAT IBILGAILU ELEKTRIKOA HORNITZEKO KONTRATAZIOA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea izango da Brigadako iturginarentzat ibilgailu industrial bat hornitzea eta garraiatzea, zehazki ibilgailu elektrikoa industrial modukoa kabinarekin, eskuin aldean ate labainkorra eta atzea ate batientearekin 180 º irekierarekin. Ibilgailua Usurbilgo Udaleko obra eta zerbitzu brigadako iturginak baliatuko du. Ibilgailu horrek baldintza teknikoen agirian definituriko ezaugarriak bete beharko ditu.

CPV kodea: 34100000-8 Ibilgailuak

Sortak: sorta bakarra da.

2. LANAK EGIKARITZEKO EPEA

Hiru hilabeteko epea izango da gehienez kontratu hau hornitzeko, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epea amaitu ondoren, enpresa kontratua atzerapen egoeran egongo da, eta ez da nahitaezkoa izango administrazioak aldez aurretik jakinaraztea.

Hauxe izango da horniduraren helbidea: Atalluko Udal Gordailua (Zapiura 3-5. Atallu industrialdea, 20170 Usurbil, Gipuzkoa).

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren balio zenbatetsia 28.925,61 eurokoa da, eta horri balio erantsiaren gaineko zerga gaineratu behar zaio (% 21). Horrenbestez, guztira 35.000 euroko aurrekontua izango da (BEZa barne). Kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak bilduko dira prezioan.

Lizitatzaileek beheranzko hobekuntzak egin ahal izango dituzte eskaintzetan, betiere prezio hobetuetan gastu guztiak sartzen badira, garraioarenak ere barnean harturik.

Nolanahi ere, prezioan sartuta egongo dira honako alderdi hauek guztiak: administrazioak

izendatutako zentro batean ibilgailua entregatzen den bitartean sor daitezkeen gastu guztiak (garraioa barne), matrikulazio zerga, garraiatu bitarteko erantzukizun zibila eta, oro har, hornidurarako behar diren gastu guztiak, betiere preskripzio teknikoen baldintza agirian eta baldintza agiri hauetan xedatutakoaren arabera.

Prezioan sarturik egongo da, orobat, ibilgailua kalera ateratzeko behar dituen baimen eta funtzio guztien ordainketak ere.

Prezioan sartuta egongo da ibilgailuaren serigrafia.

4. FINANTZAKETA

2022ko aurrekontu partida honetan, badago behar adina aurrekontu kreditu kontratua betetzearen ondorioz Udalak izango dituen betebeharrei erantzuteko: 1.6100.683.165.00.02 2022 (A-1805-2022).

5. ORDAINTZEKO MODUA

Hornidura amaitzean ordainduko da prezioa, dagokion faktura aurkeztu ondoren. Faktura hori arduradunak gainbegiratu eta egiaztatuko du, eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko.

Faktura onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198. artikuluan aurreikusitako epeen barruan ordainduko da.

Enpresa kontratistak formatu elektronikoan aurkeztuko du faktura, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (PGEFe, https://gfaegoitza.net/SarreraPuntua), betiere Udal Aurrekontua Betearazteko Arauan xedatutakoaren arabera eta faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak dioena betez.

Unitate organikoen DIR3 kodeak:
1. Kontabilitate bulegoa: LO1200739
2. Organo kudeatzailea: LO1200739
3. Administrazio unitatea: LO1200739

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berrikusiko.

7. BERMEAK

Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea:

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak behin betiko bermea eratu beharko du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Adjudikazioaren zenbatekoaren % 5ekoa izango da berme hori, BEZik gabe.

Berme hori eratzeko, hamar egun balioduneko epea izango da, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Bermea eratzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetara jo ahal izango da, nola eta ez diren eskudirutan eratzen. Kasu horretan, Usurbilgo Udalaren edozer kontu korrontetan sartu beharko dira (Kutxabank, IBAN ES 09 2095 5069 071060024832), kontzeptuan «bermea» adierazita eta espedientearen erreferentzia zenbakia zehaztuta.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da bermea, osorik zein partzialki, betiere bermealdia amaitu eta enpresa adjudikaziodunak kontratu betebehar guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu hau prozedura ireki elektroniko bidez esleituko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitakoarekin bat. Prozedura hori izapidetzean, aipatutako legean eta hura garatzeko arauetan jasotako jarduerei jarraituko zaie, eta hainbat esleipen irizpide erabiliko dira.

Lizitazio honen iragarkia Usurbilgo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.usurbil.eus), Euskadiko kontratazio plataformaren bidez.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK. Gehienez 100 puntu («B» artxibo elektronikoa)

1.- Kontratuaren prezioa: 76 puntu, gehienez.

Gehienezko prezioa 28.925,61 euroko dira (%21 BEZ barne guztira 35.000 euro). Eskaintza merkeenari emango zaio gehieneko puntuazioa, eta gainerako eskaintzen puntuazioa, berriz, formula honetatik aterako da: eskaintza ekonomiko baxuenaren eta lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza, bider irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztiak. Hau da,

LP = Et/Le x 76

Non:
LP: lizitatzailearen puntuazioa
Et: eskaintzarik txikiena
Le: lizitatzailearen eskaintza

Eskaintzak anormalki txikitzat jotzeko, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan eta hurrengoetan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149.4 artikuluan ezarritako parametro objektiboetan zehazturikoa hartuko da kontuan.

2.- Bermealdia luzatzea: 24 puntu, gehienez.

Honela balioetsiko da legezko bermealdia luzatzea:

- Bermealdia 4 urtera luzatzea (urtebete gehiago): 8 puntu
- Bermealdia 5 urtera luzatzea (2 urte gehiago): 16 puntu
- Bermealdia 6 urtera luzatzea (3 urte gehiago): 24 puntu

Eskaintza anormalki baxutzat hartuko dira 6 urteko bermealdia gainditzen dutenak, hau da, legezko bermeari 3 urtetik gorako gehikuntza eskaintzen diotenak.

INFORMAZIO TEKNIKOA DUEN MEMORIA («B» artxibo elektronikoa)

Eskaintzaren eduki teknikoa puntuatzen ez bada ere, memoria bat sartu beharko da informazio hori islatzeko. Enpresa lizitatzaileek behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute, preskripzio teknikoen agirietan eskatzen diren gutxieneko ezaugarriak betetzen direla egiaztatzeko.

Ibilgailuaren prestazio edo ezaugarri teknikoei dagokienez, nahitaez bete beharko dira baldintza teknikoen agirietan zehaztutako alderdiak:

• Ibilgailuaren *ezaugarri teknikoak*: nahitaez bete beharko ditu preskripzio teknikoen agiriko 3. puntuan ezarritako gutxienekoak.
• *Saldu ondoko zerbitzua*: preskripzio teknikoen agiriko 6. puntuan ezarritakoa bete beharko du, gutxienez.
• *Prestakuntza*: gutxienez 2 orduko ikastaroa eskaini beharko da, preskripzio teknikoen agiriko 5. puntuan ezarritakoaren arabera.

Preskripzio teknikoen agiriko baldintza guztiak betetzen ez dituzten proposamenak lizitazio prozesutik kanpo geratuko dira.

9. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, baldin eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute eta ez badaude Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako baten eraginpean.

Era berean, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako emandako ahalorde nahikoaren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa haren kideren bat badago, pertsona horrek agiri bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko ezintasun arrazoi horiek eragin egiten diote ordezkariari.

Gainera, pertsona juridikoen helburua izango da kontratu honen xedearekin lotura zuzena duten jarduerak egitea eta, horretaz gainera, kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko dituzte erakundean.

ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAK BAKARRIK EGIAZTATUKO DITU kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena, eta, horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1.a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa eta, hala badagokio, haren ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.

Nortasuna egiaztatzeko, hauek aurkeztu beharko dira:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatzaileak bere izenean jarduten badu.
- Beste pertsona edo erakunde baten ordezkari gisa jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura. Dokumentazioa kalifikatzeko egintzan, ofizioz, ahalordea askietsiko da.
Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eratzeko edo aldatzeko eskritura –Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta–, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatzekoa zaion merkataritza legeriaren arabera inskripzioa eska daitekeenean. Hala ez bada, eratze eskritura edo agiriaren, estatutuen edo sortze egintzaren bidez egiaztatuko du jarduteko gaitasuna; agiri horretan, jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira. Espainiarrak ez diren Europako Erkidegoko enpresarien kasuan, lanbide- edo merkataritza-erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, dagokion estatuko legeriak betekizun hori eskatzen duenean.
- Zenbait enpresaburuk aldi baterako enpresa elkartea osatuz jotzen badute lizitaziora, elkarte horietako bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, adjudikaziodun suertatuz gero, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute. Era berean, proposamenean adieraziko dute ABEEko kide bakoitzak zer zati egingo lukeen, haien guztien kaudimen betekizunak zehazteko eta egiaztatzeko.

1.b) Erantzukizunpeko adierazpena, nabarmenduz ez dagoela sartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aipatzen diren kontratatzeko debekuetako batean ere.

1.c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

1.d) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: ez da beharrezkoa.

1.e) Kaudimen teknikoa edo profesionala: ez da beharrezkoa.

1.f) Atzerriko enpresen kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena, eta, hala badagokio, enpresa lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten diotela adierazten duena.

*** Dokumentazio hori guztia kopia kautoan aurkeztuko da.**

Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzaileek erregistroaren ardura duen abokatuak emandako ziurtagiriaren kopia kautoa aurkeztu ahal izango dute, 1.a), 1.b) eta 1.c) ataletan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ordez.

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa Usurbilgo Udaleko **Kontratatzailearen Profilean** aztertu ahal izango dira, lizitazio honen iragarkia **Kontratatzailearen Profilean** argitaratu eta hurrengo egunetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte. Era berean, toki beretik eskuratu ahalko dira baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria ere. Harremanetarako datuak:

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. – 20170 Usurbil (Tel.: 943371951)
Helbide elektronikoa: kontratazioa@usurbil.eus

Kontratatzailearen profila: www.usurbil.eus

Proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 15. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Eskaintzak aurkezteko epea 16 egun naturalekoa izango da (14:00ak arte) amaituko da, aipatutako iragarkia agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta, isilpekotasuna bermatzeko, beharrezko neurriak hartuko dira ireki arte guztian.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazio eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta data baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman daude (www.kontratazioa.euskadi.eus).

AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Lizitazio elektronikoaren erabiltzaileentzako arreta-zentroa: 945016298 (7:45etik 20:00etara).
Webgunea: www.euskadi.eus
Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

PROPOSAMENAREN EDUKIA:

Proposamenak BI FITXATEGI ELEKTRONIKOTAN aurkeztuko dira (A eta B).

1) «A» ARTXIBO ELEKTRONIKOA «ADMINISTRAZIO DOKUMENTAZIO» gisa izendatuko da, eta honako agiri hauek jasoko ditu:

- Baldintza agiri honen I. eranskina.

2) «B» artxibo elektronikoa «AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN ESLEIPEN IRIZPIDEAK eta INFORMAZIO TEKNIKOA» gisa izendatuko da, eta dokumentazio hau jasoko

du:
• Proposamen ekonomikoa eta bermealdia, baldintza agiri honen II. eranskin gisa erantsi den ereduaren arabera.
• Ezaugarri teknikoak.

11. ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartzen.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaiak osaera hau izango du:

1. Presidentea: Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea (ordezkoa: Lur Etxeberria Gurrutxaga).
2. Mahaikidea: Ainhoa Arrospide Landa, Zerbitzuetako zinegotzia (ordezkoa: Beñat Larrañaga Urdanpilleta).
3. Mahaikidea: Garazi Etxeberria San Miguel, udal-idazkaria (ordezkoa: Olatz De Miguel Arnaiz).
4. Mahaikidea: Gorka Lizarraga Erro, udal kontu hartzailea (ordezkoa: Aitziber Iraola Izagirre).
5. Mahaikidea: Imanol Etxeberria Galarza, udal aparejadorea (ordezkoa: Aitor Eleta Sieira).
6. Idazkaria: Olatz De Miguel Arnaiz, kontratazioko eta pertsonaleko teknikaria (ordezkoa: Idoia Agirre Larrañaga).

Gainera, udaleko arduradun tekniko guztiak bertaratu ahal izango dira, baldin eta Kontratazio Mahaiak hala eskatzen badu.

13. DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, honela jokatuko da:

1.- «A» ARTXIBOA IREKITZEA.

A artxibo elektronikoa aztertuko da, aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, Kontratazio Mahaiak gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango du lizitatzaileak akatsak zuzen ditzan.

2.- «B» ARTXIBOA IREKITZEA.

«A» artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, «B» artxiboa ireki eta aztertuko da, Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta *streaming* bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez. *Streaming* bidezko lizitaziorako esteka:
- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

«B» artxiboa ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak dokumentazioa helaraziko dio hura baloratzeko ardura duen teknikariari, eta teknikari horrek argitaratuko den balorazio txostena egin beharko du.

III.- KONTRATUA EGIKARITZEA

15. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Zerbitzu Saileko udal teknikaria/aparejadoreak izango du kontratuaren ardura, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusitako eginkizunekin.

16. KONTRATUA EGIKARITZEA

Ondasunak agiri honetan ezarritako epean eta lekuan entregatu eta instalatu beharko dira, preskripzio teknikoekin eta administrazio klausulekin bat etorriz. Hala ere, administrazioak, kontratua gauzatzen den bitartean, itundutakoa ez den beste toki bat finkatzeko ahalmena izango du.

Kontratatutako enpresak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko arriskua, eta ez du izango kalte ordainik jasotzeko eskubiderik administrazioari entregatu aurretik ondasunak galdu, matxuratu edo hondatu izangatik, nola eta administrazioa ez den berandutu ondasunok jasotzerakoan.

Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean egikarituko da kontratua. Administrazioak idatziz zein ahoz baliatuko ditu ahalmen horiek.

Kontratatutako enpresari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintzen edo ez-egiteen ondorioz kontratua behar bezala gauzatzeko konpromisoa hartzen bada, administrazioak kontratua egikaritzeko ordena egokia lortzeko edo berrezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du.

17. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK (BALDINTZA BEREZIA)

Kontratatutako enpresak nahitaez bete behar ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak, kontratu honen xede diren lanetan diharduten langileei dagokienez, eta administrazioa salbuetsita egongo da ez-betetze horren erantzukizunetik.

Enpresa adjudikaziodunak, kontratuaren xede den jarduera gauzatzen duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du kontratua sinatu aurretik.

Kontratatutako enpresak, kontratua egikaritzen duen bitartean, dagokion lanbide kategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko dio langile bakoitzari, eta ordaindu beharreko soldata ez da izango inola ere hura baino txikiagoa.

Kontratatutako enpresak informazio guztia eman beharko du kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan baldintzei buruz.

Klausula honetan jasotako betebeharrak kontratuaren baldintza berezitzat hartzen dira, eta horiek ez betetzea larritzat joko da. Kasu horretan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.f) artikuluan aurreikusitako kontratua suntsiaraztea ekarriko luke.

18. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA EGIKARITZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Kontratatutako enpresa izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalteen eta galeren erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

20. JASOTZEA ETA BERMEALDIA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 210. artikuluan xedatutakoaren arabera entregatuko da hondeamakina. Usurbilgo Udaleko zerbitzu teknikoek, hondeamakina aztertu ondoren, hura jasotzea proposatuko dute, edo, bestela, idatziz emango dizkie enpresa kontratistari antzemandako akatsak konpontzeko behar diren jarraibideak, horretarako epea adierazita.

Hornidura ez badago jasotzeko moduan, berariaz emango da horren berri, eta kontratistari jarraibideak helaraziko zaizkio akatsak zuzentzeko edo beste hornidura bat egiteko, itundutakoaren arabera. Zuzenketa edo ordezkapena egiten ez bada, administrazioak kontratistaren kontura utziko ditu, eta ez du ordaindu beharrik izango edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Era berean, urtebeteko epea ezartzen da berme gisa, formalki jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ***enpresa lizitatzaileek epe luzeagoa proposatzearen kalte gabe***, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta aipatutako legearen erregelamendu orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Administrazioak bermealdian egiaztatzen badu hornitutako ondasunak ez direla egokiak lortu nahi den xederako, kontratatutako enpresari egotz dakizkiokeen akatsen edo akatsak direla medio, eta pentsa badaiteke ondasun horiek birjartzea edo konpontzea ez dela nahikoa helburu hori lortzeko, epe haren barruan atzera bota ahal izango ditu, eta kontratatutako enpresaren kontura utzi.

Epe hori igaro eta administrazioak ez badu jartzen eragozpenik, iraungi egingo da kontratatutako enpresaren erantzukizuna.

21. EZ-BETETZEAGATIKO ZIGORRAK EZARTZEA KONTRATISTARI

A) KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK

Kontratatutako enpresak ez baditu betetzen kontratua egikaritzeko epeak –osoa zein partzialak– eta, ondorioz, atzeratu egiten bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, administrazioak kontratua suntsiarazi ahal izango du kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta. Kasu horretan, galdu egingo da ipinitako bermea edo eguneko zigorrak ezarri ahalko dira, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,50 euroko proportzioan.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean BEZik gabe, kontratazio organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratistak kontratua egikaritzen jarraitzea erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN EGIKARITZE PARTZIALA EDO EGIKARITZE AKASTUNA

Kontratatutako enpresak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ez badu betetzen egikaritze partziala edo gaizki betetzen baditu kontratuan zehaztutako prestazioak, administrazioak bi aukera izango ditu: dela kontratua suntsiaraztea, aurrez ipinitako bermea galduta, dela eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euroko proportzioan, eragindako kalte-galerak ordainaraztearen kalte gabe.

C) KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ez baditu betetzen kontratuaren baldintza bereziak, astuntzat joko da ez-betetze hori, eta kontratua suntsiaraztea ekarriko du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.f) artikuluan aurreikusitako moduan.

22. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea. Ezin da egin guztizko azpikontrataziorik.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 215. artikuluan oinarrituta, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenez ere, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela. Kasu horretan, azpikontratatuko den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren identitatea adierazi beharko ditu, harremanetarako datuak eta ordezkaria edo legezko ordezkariak ere zehazturik.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro, bai eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

23. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 306. artikuluetan ezarritakoak dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

24. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatzeko prerrogatibak, kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak ebaztekoak, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzekoak, kontratua suntsiaraztekoak eta haren ondorioak zehaztekoak, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta haren erregelamendu orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan ezarritako betekizun eta ondorioei lotuta.

25. HIZKUNTZA BALDINTZAK (KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIA)

Enpresa adjudikaziodunak hizkuntza araudian xedatutakoa beteko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan. Era berean, administrazioarekin dituen idatzizko zein ahozko harremanak administrazioaren lan hizkuntzan egingo dira: euskaraz.

Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza baldintzak kontratuaren oinarrizko betebehartzat hartzen dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, eta, beraz, baldintza horiek ez betetzeak kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzearen ondorio berberak izango ditu, hau da, zigorren sistema aplikatzearen edo kontratua suntsiaraztearen ondorio berberak.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

26. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza agiri honetan oinarrituta egiten den kontratua administratiboa izango da, eta, bertan aurreikusten ez den guztirako, lege testu hauetan berariaz xedaturikoa beteko da: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra. Halaber, betetzekoak izango dira kasu horietan administrazio publikoen kontratazioari aplikatzekoak.

Administrazio klausula partikularren agiriaren eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik egonez gero, dokumentu honetan xedatutakoa nagusituko da.

27. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Ulertuko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende daudela kontratutik eratorritako auzigaiak; hala ere, alderdiek erabaki dezakete beren auziak arbitrajearen mende jartzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Usurbilgo Udala

Esp.zk.: ID.05/2022-0191
2022DEKR0473

I. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA
(“A” ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

Ordezkariaren datuak:
Izen-abizenak:
NAN:

Enpresaren datuak:
Izena:
IFZ:
Tfno.zk.:

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

LEHENA. BRIGADAKO ITURGINARENTZAT IBILGAILU ELEKTRIKOAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO lizitazioan parte hartu nahi duela:

BIGARRENA. Zehaztutako kontratuak 9/2017 Legearen 140. Artikuluaren lehenengo atala betetzen duela, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bitartez Espainiako araudi juridikoari egokitzen zaizkion Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, obren esleipendun izan ahal izateko, are zehatzago:

- Izaera juridikoa duela eta, dagokionean, ordezkaritzakoa.
- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela.
- Kontratatzea debekatuta ez duela, 9/2017 Legearen 71. Artikuluan, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, bildutakoaren arabera, eta indarrean dauden xedapenek inposatutako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela.
- Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikzioaren mende dagoela, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen arazo guztientzat eta, uko egingo zaiola, edozein kasutan ere, lizitatzaileari dagokion atzerriko edozein foruri.
- Hurrengoa dela jakinarazpenak bidaltzeko erabiliko den helbide elektronikoa:_____
- Adierazpen honetan eskatzen diren dokumentu guztiak indarrean dituela egiaztatzeko konpromisoa duela, eta kontratua esleitzen bazaio, edo eskatzen zaionean aurkeztu ahal izango dituela.

Eta hala ager dadin, adierazpena sinatzen dut.

.....en, 20....(e)ko .....aren .... (e)(a)n.

Sinadura

Usurbilgo Udala

Esp.zk.: ID.05/2022-0191
2022DEKR0473

II. ERANSKINA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN ESLEIPEN IRIZPIDEAK («B» artxibo elektronikoa)

Enpresaren datuak:
Izena:
IFZ:
Tfno.zk.:

Ordezkariaren datuak:
Izen-abizenak:
NAN:

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izanik, bere izenean edo …… enpresa ordezkatuz ezaguturik Usurbilgo Udalak deituriko IBILGAILU ELEKTRIKOAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO lizitazioa, aitortzen dut:

1) Konpromisoa hartzen dudala aipaturiko hornidura lanak prezio honetan egiteko: ..... euro, BEZa kanpo, % ..... BEZa, ... eurokoa (guztira, ...euro, BEZa barne), ulertu behar da prezioan kontzeptu guztiak sartzen direla, zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga-arlotako arielak barne, baita kontratistaren mozkin industriala ere.

2) Bermealdia. Markatu X batekin aukera. Horrela balioetsiko da (tarteko epeak edo urtebetetik beherakoak ez dira balioetsiko):

3 urteko bermea (legezko epea)		0 puntu
Guztira 4 urteko bermea (legezko epea baino 1 urte gehiago)		8 puntu
Guztira 5 urteko bermea (legezko epea baino 2 urte gehiago)		16 puntu
Guztira 6 urteko bermea (legezko epea baino 3 urte gehiago)		24 puntu

3) Ezagutzen ditudala baldintza teknikoen agiria, administrazio klausula partikularren baldintza agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik onartzen ditudala.

4) Ordezkatzen dudan enpresak betetzen dituela irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak.

5) Era berean, beharturik nagoela lan eta zerga arloko legeak edo arauak betetzera.

6) Neure borondatez onartzen dudala gardentasun instituzionala ematea lizitazio, esleipen eta egikaritze prozesutik eratorritako datu guztiei, harik eta kontratua amaitu arte.

Eta hala ager dadin, adierazpena sinatzen dut.

.....en, 20....(e)ko .....aren .... (e)(a)n.

Sinadura

*** Adi: artxibo honetan, ibilgailuaren ezaugarri teknikoak jasotzen dituen memoria ere sartu beharko da.**